

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

39/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 22koa. María Ángeles Sopelana García eta María Belén Sierra Fernández karrerako funtzionarioak, lehenetasun ordena horretan, aldi baterako izendatzea, Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak bete ditzaten, María del Carmen Rojo Pitillas titularra aldi baterako ezintasunagatik edo oporrak, norberaren gauzak edo beste arrazoi batzuk direla eta ez dagoenean, 2025ean, betiere hilabetetik beherako aldietarako

Erriberabeitiko Udalak jakinarazi du 2025eko urtarrilaren 21ean aldi baterako izendapen baten beharra duela idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, María del Carmen Rojo Pitillas titularra 2025ean aldi batean ez dagoenean ordeztzeko, betiere hilabetetik beherako aldietarako.

Hori dela eta, karrerako funtzionario hauen aldi baterako izendapena proposatzen du, lehenetasun ordena honetan:

María Ángeles Sopelana García.

María Belén Sierra Fernández.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan adierazten da ezen lanpostuaren titularra aldi baterako ezintasunean badago hilabete baino epe laburragoan edo oporrengatik, norberaren gauzengatik edo beste arrazoi batzuegatik kanpoan badago, toki erakundeko bertako funtzionario bat aldi baterako izendatu ahal izango dela hilabete baino gutxiagoko aldietarako, korporazioko lehendakariak proposaturik, autonomia erkidegoko araudiaren arabera.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Ángeles Sopelana García eta María Belén Sierra Fernández funtzionarioak, lehenetasun ordena horretan, aldi baterako izendatzea, Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak bete ditzaten, titularra aldi baterako ezintasunagatik edo oporrak, norberaren gauzak edo beste arrazoi batzuk direla eta ez dagoenean, 2025ean, betiere hilabetetik beherako aldietarako.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazi diren aldietarako bakarrik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Erriberabeitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari.

Bosgarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakezu zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta

hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 22a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JAVIER GORBEÑA GARCÍA